

LEZOKO EUSKAL ESKOLA A.E.K.

Bi ataletan banatzen dugu lantxo hau:

- 1.- Lezoko AEK-k jasutzen duen egoera.
- 2.- AEK-k darabilen metodoa.

-LEZOKO AEK-REN EGOERA

Kurtso honetan 65 ikasle, 5 irakasle eta arduradun batek osatzen dugu Lezoko AEK.

65 ikasle hauek, berriz, zazpi taldetan banatuak daude:

- 1º Urratsa: talde bat.
- 2º Urratsa: talde bat.
- 3º Urratsa: bi talde.
- 5º Urratsa: talde bat.
- Alfabetatze maila: talde bat.
- E.G.A.: talde bat.

Ikasle hauetako % 60a ihazko ikaslegoa da eta beste % 40a berria. Azkeneko hauen artean euskaldun berri eta zaharrak aurkitzen dira.

Urtero gure ikaslegoa aldatuz doa, baina beti ere ikaslego bat mantentzen da. Adibidez, gaur egun 3º eta 5º Urratsetan daudenak Lezoko AEK hasi zenetik daude. Baita Alfabetatze maila eta E.G.A.ko pertsona batzu ere.

-AEK-REN ARAZOAK

Lezoko Euskal Eskola AEK-k baditu zenbait arazo, hala nola:

- . diru arazoa,
- . nahi adina talde ez osatzea,
- . lokale falta,
- . lezotar irakaslegorik eza,
- . etab...

Diru arazoari dagokionez, gauza jakina da zein den AEK-ren egoera. Ikaslegoari kosto guztia kobratzen ez zaionez, beste zatia HABE eta Udaletxearen artean ordaindu behar litzateke. Baina ez da hala gertatzen.

HABE-k nahi duena eta nahi duenean ematen du. Udaletxearekin, dakizue-nez, arazo haundiak ditugu. Esate baterako, oraindik kobratu gabe dau-kagu.

Irakasleok, gehienetan, ez dugu kobratzen. Eta kobratzen dugunean, ioiz ere ez geure soldata.


Ez dugu, bestalde, materialerik erosteko dirurik eta duguntxo ho-rretatik ere lapurtu egin digute.

Gauzak honela, lan egiteko kondizioak nahiko minimoak dira.

Diru arazoari loturik, ezin dira nahi adinaikas talde egin, aurre-kontuak asko igoko bait lirateke.

Ez dugu geure lokalerik eta honek, noski, asko murrizten ditu lan ahalbideak, inork utzitako lekuetan. Eta eskerrak hauei.

Askok txantxetan hartuko badute ere, kurtsoaren hasieran kale go-rrian egon ginen. Asike pentsa...



Beste arazo haundi bat lezotar irakas-legorik eza da. Une honetan, beraz, i-rakasle guztiak kanpotik etorriak di-ra. Oraintsu lortu dugu lezotar bat AEK-ko laguntzaile izateko. Eskerrak! Eta...zorionak!


Garrantzi gabeko kontua irudituko zai-zue irakasle kanpotarren arazo hau, baina ez da horrela zeren gure metodo-logiak, geroxeago ikusiko duzue, kanpo ekintzak eskatzen bait ditu.

-METODOLOGIA ANTIDIGLOSIKOA


Antidiglosiari buruz hitzegin baino lehen, beharrezkoa zaigu ter-minologia argitzea eta erroko beste hitz hau ere bai: diglosia, alegia.

Diglosia edota egoera diglosikoa herrialde berean bi hizkuntz ema-ten direnean gertatzen da. Hego Euskadin, adibidez, euskara eta gazte-lania. Euskaldunontzat egoera diglosikoaren arazoa hasten da, erdera (atzerritarra) nagusitzen zaigulako, hau da, ez delako bi hizkuntzen arteko oreka mantentzen.

EGOERA DIGLOSIKOA
(oreka mantenduz)




EGOERA ANTIDIGLOSIKOA
(gaur egungo egoera)




Beraz, antidiglosia da goian aipatutako egoeraren kontra borrokatzea. Eta hauexek izan daitezke gehienetik gutxienerako helburuak:


1º EGOERA MONOGLOSIKOA



2º EGOERA DIGLOSIKOA
(euskararen alde)



3º EGOERA DIGLOSIKOA
(egoera orekatsua)



Hauxe da, hain zuzen, AEK-ren gaur egungo bidea.

Didaktika aldetik, "ekintza bidezko irakaskuntza" da antidiglosia-ren bidetik jotzen duena. Nola?

Kalean inzidentzia eta eragina duten ekintzak eginez, didaktizatuak dauden ekintzak, hau da, ekintzen inguruan klaseak programatuz (doazki-on hizkuntz-aktibitate, funtzio-komunikatzaile, espresio eta nozioak landuz).